AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3075

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2012ko abuztuaren 2ko Ebazpena, eta zuzendari beraren 2012ko abuztuaren 6ko Ebazpena, Argiñe Aurtenetxe Aginaga andreak 462/2013 zk.ko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak 2014ko apirilaren 16an emandako Epaia betez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak, 2014ko apirilaren 16ko Epaiaren bidez, partzialki aintzat hartu du Argiñe Aurtenetxe Aginaga andreak duen 462/2013 zk.ko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko maiatzaren 10eko Aginduaren kontra (agindu horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2012ko abuztuaren 6ko Ebazpenaren (EHAA, 2012-08-08) kontra jarritako gorako errekurtsoa atzera bota zen, 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitara eman zituenaren kontra). Epaiak errekurritutako ebazpena partzialki baliogabetu du. Era berean, epaiak ziurtatzen du errekurtso-egileak eskubidea duela alegatutako tituluko espediente akademikoa, II.1 – Prestakuntza akademikoa-Espediente akademikoa atalean, Administrazioak puntu bat baloratzeko. Halaber, errekurtso-egileak lehiaketa-aldian lortutako puntuazio handia dela-eta, plazaren esleipena badagokio, hura esleitu behar izan zitzaion datatik dagozkion ekonomi- eta lanbide-eraginekin.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko ekainaren 4ko Aginduaren bidez, aipatutako epaia haren baldintzetan bete behar dela erabakitzen da.

Argiñe Aurtenetxe Aginaga andreak 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran parte hartu zuen, eta hautatuta izan zen, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Euskara eta Literatura espezialitatean eta txanda librean; 7,0247 guztizko puntuazioa lortu zuen.

Aipatutako Epaia betez, sartzeko alegatutako tituluko espediente akademikoa, lehiaketa-aldiko II.1 – Prestakuntza akademikoa-Espediente akademikoa atalean, Argiñe Aurtenetxe Aginaga andreari puntu bat baloratu behar zaio, eta 6,5000 guztizko puntuazioa aipatutako aldian. Puntuazio horri oposizio-aldian lortu duena, 7,7870 puntukoa, eta dagokion ponderazioa egin ondoren, aipatutako hautaketa-prozesuan Argiñe Aurtenetxe Aginaga andrearen guztizko puntuazioa 7,3580koa da.

Horren ondorioz, irakasleen kidegoetara sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozedurak gainditu zituzten izangaien zerrendan gorago geratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako kidegoko Euskara eta Literaturako espezialitatean, txanda librea.

Horregatik, aipatutako 2014ko apirilaren 16ko Epaian xedatutakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2012ko abuztuaren 2ko Ebazpena, zuzendari beraren 2012ko uztailaren 23ko Ebazpena aldatu eta akatsak zuzendu zituena, 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak, Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren Unitateek baloratutako merituak barematu ostean, eta aldi horretako puntuazio totalak argitara eman zituena. Horiek horrela, Argiñe Aurtenetxe Aginaga andreak puntu bat izango du II.1 atalean, sartzeko alegatutako tituluko espediente akademikoa, lehiaketa-aldiko II.1- Prestakuntza akademikoa-Espediente akademikoa atalean, eta 6,5000 guztizko puntuazioa aipatutako aldian.

Bigarrena.– Aldatzea Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2012ko abuztuaren 6ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako behin betiko zerrendak argitara eman zituena. Aldaketa horren ondorioz, Argiñe Aurtenetxe Aginaga andreak, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Euskara eta Literatura espezialitatean hautatua izan zena, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin, 7,3580 puntu izango ditu.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak du epaia gauzatzeko tramiteetan gerta daitekeen edozein gai ebazteko eskuduntza, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 24a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.